

FUNTSEZKO JARDUERAK

Kontuan izan behar ditugun negozio-ereduak funtziona ahal izateko jarduerak hiru dira bereziki:

Lehengoa **Ekoizpena** da, gure produktuaren material guztia erosiko diegu gure hornitzaileei eta lehengai haiekin, gure aterkiak ekoiztuko ditugu. Manufaktura enpresa da eta horregatik ekoizpena eta entregatzea garrantzitsua da guretzat.

Bigarrena **arazoak konpontzea** da. Arazo bat izan al da ekoizteko orduan zerbait txarto ateratzea, adibidez txarto jostea. Horrek gure enpresan atzerapena eragin dezake baina langile guztiok elkarrekin lan eginez aurrera egin dezakegu arazorik gabe. Beste arazo bat izan daiteke aterkia amazonetik ez heltzea edo txarto heltzea. Hau, beldurra ematen digu baina uste dugu enpresa profesional bat dela eta gauzak ondo egiten dakiela beraz konfiantza daukagu. Hau gertatuz gero, aterkiaren prezioetik %25a itzuliko dugu aterkia heldu arte.

Hirugarrena **plataforma edo sareko jarduerak dira**. Ez daukagu plataforma pertsonalik, beraz jarduera hau ez dugu betetzen. Hala ere, gure produktua saltzeko Amazonekin aliantza bat dugu eta handik saltzen dugu, baina arazoren bat egotekotan, gure webgunea prest daukagu arazoa konpontzeko.